

Nafar hizkuntza


euskera@diariodenavarra.es

Euskararen adierazle sistema baten proiektuan hartuko du parte Nafarroak

DN. Iruñea

Euskararen adierazle sistema bat egiteko proiektu batean parte hartuko du Nafarroak; Euskal Autonomia Erkidegoko eta Frantziako entitateek ere parte hartuko dute programan, helburu izanik jakitea zein den euskararen errealitate soziala hiru lurraldeetan. Aurrekontua, guztira, 598.488 euro da. Zenbateko horretatik 389.017 euro Eskualde Garapeneko Europako

Funtsak (EGEF) ematea espero da. Nafarroari dagokionez, 2016rako eta 2017rako aurrekontua 91.375 euro da, eta aurreikusitako diru-sarrera 59.394 eurokoa, EGEFen ekarpenari dagozkionak. Adierazleek honako hauen gaineko datuak izanen dituzte, besteak beste: euskaraz dakiten pertsonen kopurua, erabilera soziala, hizkuntzaren jakingarria, ikasteko modua edo pertsonen kultur produkzioa eskuratzeko duten aukera.



Kirkkojävi-ko eskola, Espoo herrian, Finlandia.

DN

'Bullying'-aren aurkako Finlandiar eredua ezagutu dute nafar ikastolek

Eskola jazarpenaren aurkako finlandiar KiVa egitasmoa nork bere ikastolan ezartzea da orain erronka

DN Iruñea

Finlandian garatu eta arrakasta handiz txertatu duten eskola jazarpena edo *bullying*-aren aurkako KiVa programa ezagutu eta aztertzeak aukera izan zuten ikastolek aurreko ostiralean Gasteizko Europa Jauregian egin zen lan jardunaldian.

"Eskola jazarpena izugarri murriztea lortu dute Finlandian KiVa

programari esker. Finlandiako Turku Unibertsitateak landu duen programa da, herrialde horretako Gobernuak hala eskatuta. 2006an hasi ziren lantzen programa hau, baina 2009an jarri zuten martxan, eta geroztik emaitzak harrigarriak izan dira", azaltzen du Nafarroako Ikastolen Elkarteko zuzendari Josu Reparazek.

KiVa bereziki prebentzioan jartzen du indar handiena. Eskola jazarpena talde fenomeno bat dela kontuan hartuta, gakoa ikasleen jarreraren eragitea da, haien pertzepzioaren aldaketa proposatzen du. "Nafarroako Ikastolentzat ohore bat da Unibertsitate honekin elkarlana sustatzea, hauek Nafarroako Ikastolen Elkartek li-

deratzen duen KEYKOLAB, Hezkuntzan kompetentzien garapenerako Europar Programan bazkide baitira", dio Reparazek.

Nazioarteko errekonozimenduak izan dituen eta Erresuma Batura, Frantziara, Belgikara, Italiara, Suediara, Estatu Batuetara... esportatu den proiektuak, ikastolen mugimenduan harrera oso ona izan zuen. "Proiektua zabaltzeko ardura izango duen erakunde bat dagoen herrialdeetan, Unibertsitatea eredua ezartzeko prest dago. Hori bai, programa itzultzeko, KiVa lizentzia gartzeko eta nazioarteko koordinatzailearen soldata ordaintzeko inbertsioa egingo beharko dute erakunde horren bazkideek".

Bertsolaritza klaseak emateko lan poltsa deialdia zabalik

Nafarroako Bertsotzale Elkar-teak, martxoa eta ekaina bitartean Hezkuntza Arautuan eta bertso-eskoletan bertsolaritza klaseak emateko izan ditzakeen beharretarako lan poltsa deialdia abian jarri du aste honetan. Ondoko baldintzak hartuko dira kontutan: unibertsitateko diplomatu edo lizentziatu titulua izatea, EGA titulua edo titulu baliokideren bat izatea, gidatzeko baimena eta autoa izatea, irakaskuntzan esperientzia izatea, baita bertsogintzan esperientzia izatea ere, euskalgintza alorrean dinamizatzaile edo koordinatzaile funtzioetan aritu izana eta bizitokia Nafarroan izatea. Interesatuak curriculum bidali behar dute nafarroa@bertsozale.eus helbidera. Epe-muga: 2016ko otsailaren 19an amaitzen da. DN

Michel Houellebecq-en 'Sumisioa' euskaratu du Gerardo Markuleta

Michel Houellebecq-en *Sumisioa* liburua euskaraz irakurri daiteke jadanik. Gerardo Markuleta euskaratu du Meetok argitaletxearen enkarguz. Eleberrian, Frantziako gizon batek karrera unibertsitarioari ekiten dio. Irakaskuntzarako motibazio gutxi, eta bizimodu aspergarri baina lasaia espero du, drama historiko handietatik babestua. Hala ere, herrialdean jokoan dauden indarrek sistema politikoa pitzatu dute, lehertzeraino pitzatu ere. Izualdirik, benetako iraultzarik gabeko eztanda hori, amesgaizto baten modura garatuko da. Houellebecq egun Frantziara dagoen idazle garrantzitsuenetakoa da. Beste batzuen artean, Goncourt eta Shopenhauer sariak ditu. DN

Iruñeko Sormen Tailerretan oraindik izena emateko aukera

Oraindik ere Iruñeko Udalak antolatzen dituen Sormen Tailerretan izena emateko aukera badago, *Zure etxeko ogia* delakoan izan ezik. Tailerrak 5 eta 8 saioak dira, guztiak arratsalde. Bost dira, beraz, orain eskaintzen diren tailerrak: Gozogintza, Zure txirrindula konpondu, Kaleko argazkigintza, Baratzaren bakoian eta Xaboiak eta ukendu naturalak. Bestalde, Iruñeko Udalaren Civivox sarean, besteak beste, honako ikastaroak ere eskaintzen dira: Eskola-jazarpena (*bullying*), Makillatu zure pertsonaia, Ardo-dastaketa eta Norberarekiko errespetua. Informazio gehiago eta izena ematea: www.facebook.com/Sormen.tailerrak.euskeraz. DN



agenda

Otsailak 9, asteartea

IPUINAREN ORDUA

"Hartzak" eta "Kartz txikiren laguna"

4 urtetik gorakoentzat

Kontalaria: Patrizia Eneritz

San Pedroko Liburutegi Publikoa. 18:00. Sarrera libre, aurrez gonbidapena hartuta.

IPUINAREN ORDUA ETA GEHIAGO ERE...

"Lagunak gara gu"

4 urtetik gorakoentzat

Kontalaria: Ventura Ruiz

Mendillorriko Liburutegi Publikoa. 18:15. Sarrera libre.

Otsailak 10, asteazkena

IrriZiklo

ANTZERKIA

Putinen guardasola

Xentimorik gabe taldea

Antzezleak: Ramon Agirre eta Inazio Tolosa

Iturramako Civivoxa. 20:00. Sarrerak: 6 euro.

Otsailak 11, osteguna

Teatreves. Antzerki-arratsaldeak

ANTZERKIA

Tren geltokia

Zuzendaria: Zirika Zirkus

Iturramako Civivoxa. 18:30. Sarrerak: 3 euro.

Otsailak 12, ostirala

Kondestable Civivoxeko haur-ikasgela

LANTEGIAK

Ipuin sormena

4 urtetik gorakoentzat

Kondestable Zentroan. 17:15 - 19:15. Izen-ematea: 2 € saio bakoitzeko. Aldez aurretik izena eman behar da, astez aste, Kondestable zentroan.

BISITA GIDATUA

Pablo Sarasate museo-aretoa

Kondestable Civivoxa. 18:30. Izen-emateak doan, Civivoxetan

Otsailak 13, larunbata

IPUINAREN ORDUA

Zoriontasunen bila

4 urtetik gorakoentzat

Kontalaria: Eñaut Gorbea

Milagrosako Civivoxa. 12:00. Sarrera libre, aurrez gonbidapena hartuta.

Argibide gehiago: 010 telefonoa • www.pamplona.es